

telebista ♦ irratia

‘Lo que faltaba’ berria ikusgai izango da astelehenetik aurrera

Bi ordu eta erdiko iraupena izango du, eta hainbat gai jorratuko dira

Asier Iturriagaetxebarria / Galdakao

Lo que faltaba erabat birmoldatua aurkeztuko da astelehenean. Egune-
ro bi ordu eta erdiko iraupena izanda, orain arte lekuri ez zuten gaiek eta laguntzaileek beren lekutxo izango dute ETB2ko arratsaldeko magazinean.

«ERRONKA eta abentura berri baten aurrean gaude». Horrela ikusten dute Yolanda Alzola eta Txetxu Ugaldek egunero bi ordu eta erdi kameraren aurrean egotea. Azkenengo bi urteetan *Lo que faltaba* magazinaren aurkezpenaz arduratu direnek Euskal Telebistan inoiz zuzenean egin den programarik luzeena gidatzeko ardura izango dute hemen-dik aurrera.

Iraupen luzeak gai askotarikoa jorratzeko aukera ematen du, eta magazine arrosa moduan hasi zena ohiko arratsaldeko magazina bihurtu da. Hala, pertsona famatuei buruzko erreportaiak, moda desfileak, jaiak, inaugurazioak eta an-



Txetxu Ugalde eta Yolanda Alzola *Lo que faltaba* saioak dekoratu berria izango du aurrerantzean.

tzeko gaiak izango dira, eta kasu batzuetan iraupen luzeagoa izango dute. Horiez gain, orain arte jorratzen ez ziren gaiez ere hitz egingo dute *Lo que faltaba*-k fitxatu dituen laguntzaile berriek. Besteak beste, legeak, lorezaintza, osasuna eta horoskopoa izango dira ETB2ko arratsaldeko magazinak jorratuko dituen gaiak.

Ikusleak platoan

Erronka horri aurre egiteko dekoratu berria, handiagoa eta modernoagoa, izango du *Lo que faltaba*-k. Beste berrikuntza bat da ikusleak platoan izango direla, eta, Begoña Atin zuzendariak azaldu zuenez, «parte hartuko duen publikoa nahi dugu». Horretarako aukera izango dute,

adibidez, aktualitate gaiez egingo diren solasaldietan. Bertan, gizarteko sektore bat (gazteak, emakumeak...) ordezkatzeko duten pertsonen hartuko dute parte. Horrez gain, eta ikusleekin harremana izateko, lehiaketak antolatuko dira. Adibidez, Euskal Herriko emakume eta gizonezko dotoreenak aukeratzeko dituzte.

laburrean

Kolonbiako lurrikara, legez kanpoko etorkinak eta gripea ‘Asteberri’ saioan

Carmen Baroja kazetariak aurkeztutako ETB2ko *Asteberri* saioak hiru erreportaiak eskainiko ditu gaur, 20:10etik aurrera. Lehengo erreportaiak asteleheneko lurrikaren ondoren Kolonbiako Armenia eta Pereira hirietan bizi den egoera erakutsiko du. Bigarrenak legez kanpoko etorkinek Euskal Herrian bizi duten egoera aztertuko du. Azken erreportaiak gripearen ingurukoa izango da. Bertan, gripearen inguruko argibideak emango dituzte hainbat medikuk.

Torrente Ballester idazlearen heriotza ‘Informe Semanal’ saioan

Baltasar Magrok zuzendu eta aurkeztutako TVE-1ko *Informe Semanal* saioak asteazkenean Salamancan hildako Gonzalo Torrente Ballester idazle galiziararen inguruko erreportaiak eskainiko du gaur 21:30etatik aurrera. Era berean, beste hiru erreportaiak ere emango ditu gaur *Informe Semanal*-ek. Lehenak astebukaera honetan ospatzen ari den Partidu Popularraren kongresua aztertuko du. Bigarrenak Kolonbian astelehenean izandako lurrikara. Azkenak, berriz, Sierra Leonan gerrillak 48 orduz bahitutako Javier Espinosa *El Mundo* egunkariko kazetariaren kasua aztertuko du.

Espainiako saskibaloia Errege Kopa La 2 katean

Valentzian ospatzen ari den Espainiako saskibaloia Errege Koparen azken fasea eskainiko du egunotan La2 kateak. Hala, gaur Real Madrid-Fuenlabrada final-laurdenetako partidua eskainiko da 18:05ean. Bihar, berriz, bi finalerdiak botako dituzte, bat 13:00etan eta bestea 18:00etan. Azkenik, astelehenean finala eskainiko da. Tau Ceramica talde gasteiztarra da Espainiako saskibaloia Errege Kopako azken fasera sailkatutako zortzi taldeetako bat.

txoritxoari mokoka ♦ Ines Intxausti

Playmutilak

EZ daukat harreman onik —ez txarrik— medikuntza ofizialarekin, bizitza eta heriotza biltzen dituen esangura metafisikoa baino askoz ere garrantzikoagoa da hainbat gizakirentzat. Egune-
ro nola zauden neurtzen duten profesionalak guztiz errespetagarriak dira. Bai horixe. Hala ere, gutxitan bisitatu dut nire *buruko* sendagilea. Oso egokia izango zen hurrengo lerroetan nire ebangelio higienista zabaltzea, baina kontrako gauza bat egingo dut badaezbada. Ginekologoarenean izan naiz. Eta argi eta garbi esan diot medikua baino gehiago pertsona optimista bat dela. Bere ezaguerak erabiltzen ditut emakumezkoa naizelako. Eta ez beste ezergatik, noski. Farmakopea urrezko materiala izan arren, hilezkoak gara, bizi-rik edota suizidaturik, noski.

Larrea Mujika idazleak idatzi zuen istorio baten bertsioarekin jantziko dut anekdota txiki hau: bazen behin amo-

rante gazte bat zuen erregina. Egun batean erregeak egun berezia zela-eta emazteari jaki gozo bat prestatu zion.

- Gustatu al zaizu?— galdetu zion, eta baietz erantzun zion emakumeak.

- Ba zure maitalearen gibelak ziren, maitea... — esan zuen besteak.

- Inoiz jan dudana janari gozoena izan da — esanez bere buruaz beste egin zuen leihotik behera.

Niri ez zitzaidan horrelakorik gertatu-ko. Nik ditudan organoekin oso berezia naiz. Ez baititut jaten. Eta urrundik usaintzen ditut edozein motatako erraiak. Beraz, gauza gutxi geratzen zaizkit jateko modukoak. Zakilak, adibide gisa. Oraingoz ez dut zakilik, eta amoranteak direla medio prest eta gehiago egongo nintzateke halakoak jateko. Irensteko eta gordetzeko. Bar-

neko biszeralitatea ateratzeko orduan *asadurila* nahiago telebista baino. Joan den asteazkenean *Dantza geroa* espektakulu patetikoarekin aritu zen ETB. Lan horretan ez zegoen telebista publiko batean eskaintzeko moduko kalitate minimorik. Ezta herri konkretu baten telebistan ere. Agian bertan bildu zirenen gurasoen komunitateko telebista domestikoetan bai. Baina ez beste inon. Ez maiteok. Telebista bakarra da bere burua astindu eta iraintzeko orduan. Eta ETBren lehenengo katea *zapping*-etik ezabatzeko aginduko diot etxeko telemandoari. Kontuan hartzeko arrisku posibilitatea izan arren osasuntsua dirudit paisaia katodikoaren eraginak garbitzeko. Batzuetan Ricardito Bofill eta bere neskalagunak izaten dira pantailan agertutako burmuin inteligenteenak. Eta hori ez bada ikaratzeko modukoa, etor dadila Jose Luis Moreno ETBra berriro.